

# BESTELAKO XEDAPENAK

ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA / BASQUE INSTITUTE

## 1953

*EBAZPENA, 2026ko apirilaren 23koa, Etxepare Euskal Institutuko zuzendariarena, Euskara eta Euskal Kulturako irakurleak hautatzeko Hautapen Batzordearen osaera xedatzen eta argitaratzen duena.*

2026ko apirilaren 13an, EHAAn argitaratu zen 2026ko martxoaren 20ko Ebazpena, Etxepare Euskal Institutuko zuzendariarena, unibertsitate hauetan euskara eta euskal kulturako irakurleak hautatzeko deialdia irekitzen duena: Leipzigeiko Unibertsitatea Alemanian, Txileko Unibertsitatea Txileko Santiagon eta Txileko Santiagoko Pontificia Universidad Católica de Chile Unibertsitatea, eta Tibilisiko TSU Unibertsitatea Georgian.

Ebazpen horren 9. artikuluan xedatzen da deialdira aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebatzatzeko Hautapen Batzordea eratuko dela.

Hori dela eta, hau

### XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Aipatutako hautapen batzordea osatuko duten kideak izendatu eta ezagutzera ematea. Honako hauek izango dira batzordekideak:

Lehendakaria: Monika Madinabeitia Medrano andrea, Etxepare Euskal Institutuko Euskara Sustatu eta Hedatzeko zuzendaria, edo ordezkoa.

Kideak:

– Larraitz Ariznabarreta Garabieta andrea, edo ordezkoa.

Idazkaria: Eneko Agirre Maiora jauna, Etxepare Euskal Institutuko euskara eta kultura sustatzeko teknikaria, edo ordezkoa.

Bigarrena.– Honako ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agindua ematea.

Donostia, 2026ko apirilaren 23a.

Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria,  
IRENE LARRAZA AIZPURUA.